

GAKO EKONOMIKOAK

- Covid-19 kasuen igoera nabarmenak murrizketa zorrotzak ezartzea eragin du, beraz, ekonomiaren hobekuntza gehiago atzeratzearen beldurra dago.
- Burtsan gora behera handiak izan dira eta, hilaren bukaeran Estatu Batuetan eta Europan eroriak bizi izan dira. Japoniak eta emergenteek, aldiz, gora egin dute.
- Tasen gorakada Atlantikoaren bi aldeetako zorretan. Kreditu pribatuaren jarrera ona, kreditu kalitate eskaseneakoarena gehienbat.
- Dolarraren igoera, babeseko aktibo gisa, eta petrolioaren prezioaren % 7tik gorako igoera hilabetearen zehar.

MAKROEKONOMIA ETA MERKATUAK

2020ko azken hiru hilabeteetan hobekuntza ekonomikoa moteldu bazen ere, birusaren bigarren olatuaren ondorioz, urtarrilean uste zen 2021 hobekuntza urtea izango zela mundu osoan txertatzen hasi zirelako eta taldeko immunitatea lortzeko itxaropenaren ondorioz. Halere, hilabeteak aurrera egin ahala, eszenatokia iluntzen joan zen. Gabonetan birusari eusteko neurriak lasaitu zirela eta bariante kutsakorrago batzuk agertu zirela eta, kasuek gora egin zuten berehala eta berriz ere murrizketa neurriak hartu behar izan ziren. Gainera, Pfizer txertoaren kasuan esaterako, hornikuntza atzeratu zen eta Astrazeneca farmazeutikaren eta EBren arteko hornitzeko kontratua ez betetzeagatik bizitako gatazkek biztanleen immunitatea are gehiago luzatuko zela zirudien eta horrek eragin negatiboa izango luke makro ingurunean. Testuinguru horretan, banku zentralek eta gobernuak berriz ere egin zituzten ekonomiaren aldeko adierazpenak, pandemiari aurre egiteko borrokan. Erreserba Federalak egonkor eutsi dio bere politika monetarioari eta merkatuan pizgarriak goiz kendu zitezkeen aukerak sortutako beldurrak uxatu zituen. BCEak, aldiz, ez zuen aldaketarik egin bere politika monetarioan, abenduan egindako pizgarriak jakinarazi ondoren. Estatu Batuetan, Georgiako Estatuko hauteskundeetako emaitzen ondoren, Senatua Demokratik esku geratu zela berretsi zen eta, horrekin, partido horren esku geratu zen bi ganberen gehiengo (Kongresua eta Senatua). Testuinguru honetan, Joe Bidenek Estatu Batuetako presidentea kargua hartu zuen eta 1,9 bilioi dolarreko pizgarrien plana aurkeztu zuen, hobekuntza bultzatzeko. Gainera, Estatu Batuetako Ganbarak oraindik presidentea zen Trumperen aurka impeachment prozedurari hasia bozkatu zuen, maxinada pizteagatik, Trumperen jarraitzaileek Capitolioa hartzen saiatu ondoren. Estatu Batuetako zerga laguntza osagarri horrek, Japoniakoarekin batera eta txertoak sortutako hobetze itxaropenak gehituta, FMIri 2021erako munduko hazkuntza ekonomikoa % 5,5 hobekuntza aurreikustea eragin du, urriari aurreratutakoa baino hiru hamarren gehiago. Halere, aurreikuspenen hobekuntza hori ez zen heldu Europan, erakundeak 2021erako % 4,2ko hazkuntza espero baitzuen Eurozonan. Horrek, urriari aurreikusitakoa puntu batean jaisten zuen. Eurozonan zalanaz betetako guneak berpizten ari dira arlo politikoan. Italiako erakundeek krisialdia bizi dute Giuseppe Conte dimisioa aurkeztu ondoren. Italiako lehenengo ministroak dimisioa aurkeztu zion Errepublikako presidenteari, Italia Vivak, Matteo Renziaren alderdiak bere laguntza ukatu eta parlamentuan behar zituen aldeko botoak ez izateagatik, besteak beste, krisialdi ekonomiko honetatik irteteko planaren aurka baitzegoen.

ERRENTA ALDAKORRA

Urte hasieran aurrerapauso handiak eman ziren. Inbertitzaileek txertoen epe ertainerako efektuen zain zeuden, eta Banku Zentralek eta gobernuak baldintzarik gabe eskaini zituzten laguntzak. Izan ere, hilak aurrera egin ahala koronabirus kasuen gorakadak eta Europan txertoak faltan egoteak ekonomiaren hobekuntza moteltzen ari zenaren beldurra eragin zuen. Testuinguru horretan, indizeek noranzkoa aldatu zuten eta Atlantikoaren bi aldeetako burtsa nagusiek gorrian itxi zuten. Estatu Batuetan, S&P 500 indizeak % 1,11ko erorikoa izan zuen. Nasdaq teknologiko selektiboak, aldiz, hilean +% 0,29 igo zuen. Hile honetan gaizkien ibili zirenak europar burtsak izan ziren: Eurostoxx 50ak % 2 inguru galdu zuen eta Espainiako burtsak, aldiz -% 3,92. Europatik eta Estatu Batuetatik at, japoniar burtsa, zeinak galerak saihestu eta % 0,80ko igoerarekin itxi zuen, eta emergenteen multzoa nabarmendu ziren, zeinak +% 2,97 hobetu zuen.

INDIZEA	ESKUALDEA	ORAINGO MAILA	DIBISA	HILEKO ALDAK.	2021eko ALDAK.
IBEX-35	ESPAINIA	7.757,50	EUR	%-3,92	%-3,92
EUROSTOXX-50	EUROPA	3.481,44	EUR	%2,00	%-2,00
S&P-500	AEB	3.714,24	USD	%-1,11	%-1,11
DOW JONES	AEB	29.982,62	USD	%-2,04	%-2,04
NASDAQ 100	AEB	12.925,38	USD	%0,29	%0,29
NIKKEI-225	JAPONIA	27.663,39	JPY	%0,80	%0,80
EMERG. MSCI	EMERGENTEAK	1.329,57	USD	%2,97	%2,97
MUNDUKO MSCI	GLOBALA	2.661,69	EUR	%-1,05	%-1,05

Iturria: Bloomberg

ERRENTA FINKOA

Urtarrilaren bukaeran, Atlantikoaren bi aldeetan igoerak izan dira, AEBn biziko den inflazioaren espero den igoerak bultzatuta gehienbat. Amerikako hamar urterako bonuaren errentagarritasunak 15pbs egin du gora, % 1,07ra arte. Bonu alemanak, aldiz, 5 pbs igo ditu, -% 0,52ra arte. Periferikoei dagokienez, Espainiak bere primari eutsi dio Alemaniak ez bezala. Italiak alemanarekiko diferentziala igo du 5pbs, ziurgabetasun politikaren eraginez. Bukatzeko, errenta finko pribatuko bonuen diferentzialak, aldiz, asko areagotu dira, kreditu kalitate txikiagoetan gehienbat, burtsek bizitako arrisku txikiagoaren aurkako mugimenduaren ildo beretik.

INDIZEA	EPEA	ORAINGO MAILA	HILEKO ALDAK.	2021eko ALDAK.
EURIBOR	3 HIL.	-0,55	0,00	0,00
	6 HIL.	-0,53	0,00	-0,01
	12 HIL.	-0,51	0,00	-0,01
ALEMANIAKO ZOR PUBLIKOAK	2 URTE	-0,73	-0,03	-0,03
	5 URTE	-0,74	0,00	0,00
	10 URTE	-0,52	0,05	0,05
ESPAINIAKO ZOR PUBLIKOAK	2 URTE	-0,54	0,09	0,09
	5 URTE	-0,37	0,02	0,02
	10 URTE	0,10	0,05	0,05

Iturria: Bloomberg

DIBISAK ETA LEHENGAIK

Arriskuaren beldurreko testuinguru horretan, dolarra beste dibisekiko sendotu da. Yenak, aldiz, ez zuen bete babes aktibo betekizuna eta moteldu egin da. Librak jarrera ona izan du europar blokearen monetarekiko. Bestetik, petrolioaren prezioak % 7,19 egin du gora, OPEP+aren akordioak bultzatuta, zeinaren ondoren Saudi Arabiak gordinaren ekoizpena moztuko duen eta AEBren zerga politika zabalagoko aurreikuspenak direla eta.

Euro/Dolar



Iturria: Bloomberg